



HERRITARREN PARTE-HARTZERAKO TXOSTENA, NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO FUNTZIONARIOEN OPOR, LIZENTZIA ETA BAIMENEN ERREGELAMENDUA ONETSI ZUEN OTSAILAREN 9KO 11/2009 FORU DEKRETUA ALDATZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUARI BURUZKOA

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua arautzen du herritarren parte-hartzea lege eta erregelamendu maila duten arauak prestatzeko prozeduran. Artikulu horren 1. apartatuak jasotzen du kontsulta publikoaren tramitea bideratuko dela, herritarren iritzia jasotzeko, eta kontsulta hori eginen dela ekimenaren testua idatzi baino lehen.

Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak 13. artikuluan j) apartatuan dioenez, edozein herritarrek behar den denborarekin eskuratzen ahalko du herritarren parte-hartzea izanen duten proposamenei buruzko informazioa, egiaz eta eraginkortasunez parte hartzearen planen, programen eta parte-hartzearen menpe jartzen diren beste proposamen batzuen diseinuan, prestaketan, aldaketan, berrikuspenean eta ebaluazioan. Horrez gain, k) apartatuan esan bezala, eskubidea izanen du parte hartu duen prozeduraren behin betiko emaitza publiko egiteko, eta hartutako erabakiaren oinarri diren arrazoi eta gogoeten berri eman dakiola, parte hartzeko prozesu publikoari buruzko informazioa barne. Gainera, 21. artikulua azaltzen duenez, Nafarroako Administrazio Publikoek argitara emanen dituzte prestatzen ari diren araugintzako prozedurak, tramitazioaren zein unetan dauden adierazita, baita herritarren parte-hartzearen emaitza ere, iritzia emateko aurkeztu zaizkien prozesu guztietan.

Herritarrek alde zuzeneko kontsultan parte hartzeko aukera izan zuten, iradokizunak edo ekarpenak aurkeztuz 2020ko irailaren 25etik urriaren 16ra bitartean. Aukera hori gauzatu ahal izateko, interesdunen eskura jarri zen posta elektronikoko helbide hau: funcionpublica@navarra.es. Parte hartzeko prozesu hori amaitu zen inolako ekarpenik jaso gabe, eta horrela adierazi zen zegoen txostenean.

Ondoren, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen Erregelamendua onetsi zuen otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekreturako proiektua prestatu eta gero, herritarren parte-hartzeko tramitea egin zen Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian argitaratuta, web esteka honetan, hain zuzen:

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza/prozesuak/fdekretu-proiektua-fd-112009-otsailaren-9koa-aldatzeko-funtzionarioen-opor-eta-abar-2020>

Proiektuaren behin-behineko testua jendaurrean jarri zen 2020ko azaroaren 11tik abenduaren 1era bitartean, eta arestian aipatutako helbide elektronikoa gaitu zen horretarako.

Epe horretan, FEDER erakundeak (Gaixotasun Arraroen Espainiako Federazioa) eskaera bat aurkeztu zuen 11/2009 Foru Dekretuaren 13.bis artikulua 1. apartatuaren testua aldatzeko, funtzionarioen eskubidea den lanaldi murrizketaren gehieneko ehunekoari lotuta. Izan ere, haren ustez, ez litzateke ezarri beharko lanaldia murrizteko %75eko gehieneko muga. Hala ere, ez da bidezkozat jo proposamen hori onartzea.

Horrenbestez, eskaerak aurkezteko epea amaitutakoan, bidezkoa da proiektu horren tramitazio administratiboarekin jarraitzea.

Iruñean, 2020ko abenduaren 14an.

Sinadura jatorrizkoan dago